

1

Ibilbide motza

**PR-A 50**  
**IKAZTEGIETAKO**  
**IBILBIDEA**  
**eta Cruz del**  
**Castillo**  
**mendiaren igoera**

Seinaleztapena





Ibilbidearen jarraipena



Norabide aldaketa



Norabide okerra





# ARABAKO MENDIALDEKO ibilbideen sarea

## ARABAKO MENDIALDEKO ibilbide motzen sarea

### FITXA TEKNIKOA

	Distantzia	4,5 km
	Denbora	2h 00'
	Zailtasuna	Erreza
	Ibilbide mota	Zeharkakoa

Cruz del Castillo mendira daraman ibilbide hezigarri honek paisaia eder-ederrak ditu. Bidean zehar interpretazio-panelak daude, bai eta ikaztegien zenbait erreproduzio ere.



[www.arabakomendialdea.eu](http://www.arabakomendialdea.eu)

Arabako Mendialdeko  
Kuadrilla  
Gasteiz - Lizarra errepidea, 7  
01110 Santa Cruz de Campezo  
(ARABA)

945405424

[arabakomendialdea@arabakomendialdea.eu](mailto:arabakomendialdea@arabakomendialdea.eu)

Eskualdeko turismo bulegoa  
Aintzinako Vasco-Navarro Trenaren  
ibilbide berdearen Interpretazio Zentroa  
01128 Antofiana  
(ARABA)

945410577



## DESKRIBAPENA

LAGRAN. Ibilbide hau Musikako Plazan hasten da. Ondoren, Guardia kalea hartu behar da, Vianatarren jauregi barrokoaren paretik pasatzen dena. Hilerria gainditu eta gero, herria atzean uzten da.

Asfaltozko zorua laster amaitzen da, hegoalderantz doan lursail-pista zuzen bat hasten delarik. Bideak Cruz del Castillo mendirako norabidea dauka. Mendi horren kareharrizko tontorrak ia 1.500 metroko altuera dauka. Bere gailurrean, prismatikoak erabiliz, gurutze bat ikus daiteke.

Bidegurutzetan beti zuzen jarraituz, bidaztia mendilerroaren oinera hurbilduz doa. Ia 2 kilometro ibili ondoren, bidegurutze batean legarrezko bidea amaitzen da. **1** Eskuineko adarra atzean utziz, aurrera segitu behar da, ibilbidea azaltzen duen kartel bat gaindituz. Jarraian, bidea malkartsu bihurtzen da erkameztian barneratzen den aldi berean. Hala ere, segidan pagadi bikain batek ordezkatuko du erkameztia. Izan ere, pagadia izango da baso mota nagusia ibilbide osoan zehar.

Ondoren, bidaztiak hainbat bihurgune aurkituko du bidean zehar, bai eta mendiko landaretzari buruzko zenbait kartel ere **2**, 2,7 kilometro ibili ondoren, bidebanatze baten parean, seinale-tantai bat dago, hainbat mendi-ibilbidek bat egiten duten puntua adierazten duena. **3** Ibilbide horiek dira "Ibilbide historikoa" (GR-1), "Ardoaren eta arrainaren ibilbidea" (GR-38) (argitaratutako topogidak dituzte biek) eta honako ibilbide hau. Bidaztiak aurrera jarraitu behar du Cruz del Castillo mendira joateko seinalaturiko bidea hartuz. Mendira ailegatzeko 2 kilometro baino gehiago falta da, eta desnibela 500 metrokoa da. Segidan, bidaztiak lehenbiziko ikaztegia aurkituko du, lehen eraikuntza-fasean dagoena. Bidean zehar aurrera egiten duen heinean, ezpelak dituen pagadi hostotsuaren gerizpean, beste zenbait ikaztegi aurkituko du. Ikaztegi horiek eraikuntza-fase ezberdinetan daude, eta argibide kartel bana daukate.

Hirugarren eta azken ikaztegia Huecozabala izeneko iturriaren ondoan kokaturik dago **4**. Puntu hori, 1.000 metro baino gehiagoko altitudetan, geldialditxo bat egiteko leku aproposa da.


Iturria atzean utzita, bidexka labur batek beste pista nagusi batekin bat egiten du. Bidegurutze horretan ere hartu beharreko bidea (beti maldan gora) adierazten duen seinale-tantai bat dago. Ezkererako adar bat atzean utzi eta gutxira, bidea bitan banatzen da. Ezkerreko bidea hartu behar da, aurrerago hainbat bihurgune duena eta mendiaren oinera igotzeko azken tarte osatzen duena. Hartara, bidaztia Puerto del Toro mendate ospetsuan egongo da, 1.200 metroko altitudetan eta Cruz del Castillo mendiaren kareharrizko harkaitz izugarrien azpian.

Mendixka erdi-erdian, kartel batek gailurrerako bidea seinalatu du: bide nagusiaren eskuinaldean sortzen den eta ezpeldi trinko bat zeharkatzen duen bidexka bat hartu behar da. Bide mehar hori mendi-mazela aldapsu eta malkartsutik igotzen da.

Gutxi falta da jadanik gailurrera ailegatzeko. Bat-batean, basoa irekitzen da, paisaia izugarri bat erakutsiz. Arabako Errioxako lur lauek zeruertz okrea betetzen dute. Bertan, Guardia Erdi Aroko hiribildua nabarmentzen da babespeko biotopo izendatutako urmaelen gainetik.

Mendixka txiki bat eta azken aldapa gainditu ondoren, 1.432 metroko gailur bikainera ailegatu da. **5** Bertatik, zeruertz zabala begiztatzen da.

## PROFILA



ARABAKO MENDIALDEKO  
KUADRILLA  
CUADRILLA DE  
MONTAÑA ALAVESA



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava